

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Álvaro Pérez Calvo karrerako funtzionarioa izendatzea, izendapen askearen bidez, Laudioko Udaleko udaltzaingoko ofizial buru izateko (1011 kodea, udal-kudeaketako arloari, alkatetzako azpiarloari eta udaltzaingoko zerbitzu-unitateari atxikia)

Alkatetzaren 2026ko ekainaren 15eko 898 Dekretuaren bidez, honako erabaki hau hartu da:

Álvaro Pérez Calvo Udaltzaingoko ofizial buru izendatzea (kodea: 1011; taldea: C1; lanpostu-mailako osagarria: 19; berriazko osagarria: 25.260,34 euro; eta arduraldi bereziagatiko ehuneko 15eko igoera, udal-kudeaketako arloan, alkateordetzan. Bere titulartasuneko den lanpostua gordeko da dekretuaren egunetik kargua utzi arte.

Izendapenaren baldintza izango da izendapenaren xede den lanpostuaz jabetzea. Izendapena ALHAOn argitaratuko da.

Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Ebazpenaren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da ebazpena eman duen organoaren aurrean; hilabeteko epea dago horretarako, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Ez bada ipintzen goian aipatu den aukerako berraztertze-errekurtsoa, irekita geratuko da auzibidea eta, beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Vitoria-Gasteizen, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian; bi hilabeteko epea dago horretarako, ebazpen honen jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Laudio, 2026ko ekainaren 16a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ